



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abenduaren 11

66 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Ebazpena, Radio Televisión Españolak Nafarroan duen lurralde zentroaren egungo programazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Ebazpena, oliba olioaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamena ezesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Nafarroak NATOn sartzearen aurka adierazi zuen borondatea onartarazteko mozioa. Osoko Bilkurak baztertua (5. or.).

#### G SAILA:

##### **Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (6. or.).

#### I SAILA:

##### **Parlamentuko Ekitaldiak**

—1996ko azaroan egindako bilerak (7. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko azaroan sartu diren agirien zerrenda (9. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía.

### **Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea**

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan agerian geratu da aurrekontu dotazioa handitu beharra etxebizitza arloko hainbat dirulaguntza eta laguntza mota finantzatzeko.

Horren ondorioz, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**1. artikulua.** 500.000.000 pezetako kreditu-osagarri bat eman da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaio 1996ko Aurrekontuan "Etxebizitzen sustatzailer, erosle eta erabiltzaileendako dirulaguntza eta sorospenak. Foru Programa" izena duen 32220-7800-4312 gastu-kontusailari, 20000 proiektuari, 99001-7 lerroari.

**2. artikulua.** Kreditu-osagarri honen finantzaketa "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" deritzon 11400-8700 kontusail, 12000 proiektu, 33725-6 lerroaren kargura egingo da.

### **Azken Xedapena**

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B Sailsa:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkartegunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztutako Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena

aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1996ko urriaren 11ko 53 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkartegunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena, aintzat

hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1996ko urriaren 23ko 55 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía.

---

**E SAILA:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Ebazpena, Radio Televisión Españolak Nafarroan duen lurralde zentroaren egungo programazioari buruzkoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "Radio Televisión Españolak Nafarroan duen lurralde zentroaren egungo programazioari buruzko Ebazpena", 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena, Radio Televisión Españolak Nafarroan duen lurralde zentroaren egungo programazioari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Radio Televisión Españolako zuzendaritzarekin hitz egiten has dadin lurralde-deskonexioei buruzko hitzarmen edo ituna lortzeko, Nafarroako Foru Komunitateak komunikabide publikoetan bere programazioa eduki ahal dezan nahikoa iraupenarekin.

## **Ebazpena, oliba olioaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamena ezesten duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, "oliba olioaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamena ezesten duen Ebazpena", 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena, oliba olioaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamena ezesten duena**

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du oliba olioaren MAA (Merkatuaren Antolamendu Amankomuna) aldatzeko proposamenaren aurka daudenekin eta Nafarroako Gobernua premia egiten du Nazioko Gobernura jo dezan:

1.- Ekoizpenerako laguntza ukazina dela jotzeko, olibadiak eta oliba olioaren industria gaurkotzeko ezinbesteko denez gero, eta oliba nekazarien errenta osatzeko dirusarreraren berme.

2.- Bermaturiko gehieneko kopurua gehitzea eskatzeko, benetako ekoizpenarekin egokitu dadin, gerora.

3.- Eskuhartze prezioari eusteko, sektorearendako segurtasun-bermerik hoberena da eta, oliba oliarendako gutxieneko prezioa ezartzen duelako.

4.- Oliba olioaren bestelako hazi-olioekin nahastea debekuari euts diezaion, oliba olioaren kalitatea zaintzeko.

5. Ontziratze kontrolak indartzeko, iruzurrak saihestearren.

6.- Kontsumorako laguntzak defendatzeko, aurrekontu-gastuaren kontrol handiagoa ekarriko dutelako.

7.- MAren aldaketa lortzeko, Europako Bata-sunean oliba olioaren kontsumoa bultzatzeko kan-painak egin beharra azpimarratuz, olio landarea lantzen dutenek euren errentari eusteko benetako berme gisa.

Halaberean, Nafarroako Parlamentuak premia-

tu egiten du Nafarroako Gobernua aintzat har dezan neurriak onestea, ekoizle eta kooperatiba sektorearekin bat, olibondo lantzea bultzatzeko, ekoizleendako ekoizpen errentagarria gehitzeko eta olio errotak eguneratzeko, ingurugiroa erres-petatuz kalitate handieneko olio lortzearren.

---

## **Nafarroak NATOn sartzearen aurka adierazi zuen borondatea onartaraz- teko mozioa**

### *OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1996ko azaroaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroak NATOn sartzearen aurka adierazi zuen borondatea onartarazteko mozioa, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua, baztertu zuen. Mozio hori 1996ko aza-

roaren 15eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

---

**G Sails:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

**Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa**

**Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda**

1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia. Haren 4. oinarriko 4. atalarekin bat, erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioi buruz erabakiak hartu ondoren

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Ebazpen honi erantzen zaion onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatu eta Kontuen Ganbarako iragarki oholean ezar dadin agintzea. Halaber, Kontuen Ganbarako Langile Batzordeari helaraztea.

Iruñean, 1996ko azaroaren 28a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

**Onartuen eta baztertuen  
behin betiko zerrenda**

1996ko urriaren 31ko 58 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kontu-ikuskaritzako teknikari izateko bi lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta eta aipatu deialdiko 4. oinarriak xedatuarekin bat, ondoren paratzen da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

**Onartuak:**

IRIGOYEN OLAIZ, Lourdes  
ITURRALDE GARCIA, Angel M<sup>a</sup>  
JUANIZ LARRAÑEGUI, Ana M<sup>a</sup>  
LOPEZ RUIZ, Carlos  
MURUZABAL VALENCIA, Jesús Angel  
URRA PAGOLA, Bernarda  
VILLANUEVA BAQUEDANO, M<sup>a</sup> Luisa

**Baztertutak: \***

CASTILLO SETAS, Begoña

\* Deialdiko 2. 2. 1 oinarriko a, b eta c) atalek aurreikusitako betebeharrak ez egiaztatzeagatik.

---

**I Saila:**  
**PARLAMENTUKO EKITALDIAK**

---

## 1996ko azaroan egindako bilerak

### MAHAIA

22 eta 27an.

### MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

4, 11, 13, 18, 25 eta 28an.

### OSOKO BILKURA

14a:

– a) Ekonomia eta Ogasun Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Ekonomia eta Ogasun Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izango ote den erabakitzea, hala badagokio.

b) Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari kreditu-gehigarria emateari buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena, aintzat hartzea, hala bada.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako industrialdeak herrietan sustatzeko dirulaguntzei buruzkoa, aintzat hartzea, hala bada.

– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko Hitzarmena, oliba olioaren ekoizteko laguntza araubidea ezartzeko kontrol sistemei buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Juan Cruz Alli Aranguren jaunak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernuak beste lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dezan Euskal Autonomia Erkidegoarekin, eztabaidatu eta bozkatzea

28a:

– a) Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izango ote den erabakitzea, hala bada. (LEY-29/96).

b) Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkezturiko Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala bada.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena, aintzat hartzea, hala bada.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Nafarroak NATOren sartzearen aurka adierazi zuen borondatea onartarazteko, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozioa, Radio Televisión Española Nafarroan duen lurralde zentroaren egungo programazioari buruzkoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, oliba olioaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamena ezesten duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

**OSASUN BATZORDEA**

5a:

– Lan saioa, Nafarroako Farmazilarien Kolegioko, Nafarroako Farmazilarien Elkarte Independenteko eta Nafarroako Herrietako Farmazilarien Elkarteko ordezkariak ager daitezen, Nafarroako farmazi antolaketaren berri emateko

7a:

– Lan saioa, Asociación de Farmaceuticos Regentes, Adjuntos, Sustitutos y sin Ejercicio de Navarra delakoko (FRASSEko) eta Irache Kontsumitzaileen Elkarteko ordezkariak ager daitezen, Nafarroako farmazi antolaketaren berri emateko.

**GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA**

11:

Senideak Elkartearekin euskal presoaren egoeraren gainean izandako lan bilerari buruzko proposamenak aztertzea.

**HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**

12a:

– Lan saioa, Pablo Sarasate Orkestrako langileen ordezkariak orkestrak dituen arazoaren berri eman dezan.

19a:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektoraren agerraldia, Kontuen Ganbarak Irakasleen Kidegoak parekatzeko osagarriari buruz emandako gomendioak bete ote diren informatzeko.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektoraren agerraldia, selektibitatea gainditu eta posturik gabe geratu diren ikasleak Unibertsitatean sartzeko hartu asmo dituen neurrien berri eman dezan.

20a:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren agerraldia, egungo Gobernuak "Haur Hezkuntza eta Lehen eta Bigarren mailako Hezkuntzako ikasleen eskolatze egoera eta beharizanei buruzko Azterketa"z duen irizpidearen berri eman dezan.

21a:

– Lan saioa, Moneo arkitekto jaunak Nafarroako Artxibo Orokorraren egoitza berriari buruzko informazioa eman dezan.

26:

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernuak fundazio profesionala eratzeari ekin diezaion, Pablo Sarasate Orkestra kudeatzeko, eztabaidatu eta bozkatzea.

27a:

– Lan saioa, Aurrabiako Paz de Ziganda ikastolako ordezkariak batek bere egoeraren berri eman dezan.

**HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA**

13a:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, EITB Nafarroan hartu ahal izateko izapide edo negoziaketaren egoeraren berri eman dezan.

26a:

– Lan saioa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak obren esleipenari buruzko azalpenak ditzan.

**INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA, ETA TURISMO BATZORDEA**

21a:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, "1994-1995 Enpleguaren sustapena aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostenaren" berri emateko.

22a:

– Bozeramaleen Batzarrak hala eskatuta, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, "1994-1995 Enpleguaren sustapena" aurrekontu-programaren berri emateko.



## Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1996ko azaroan sartu diren agirien zerrenda

### 4a:

– Ergoienako Udalaren idazkia. Harekin batera, Udaltzaren Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren aldekoa.

– Susana Ruiz Sola andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Javier Marco García-Mina jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Autopistako bidesarien balizko merketzeari buruzkoa.

– M<sup>a</sup> Jesús Aramburu Zudaire andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Arronizko Udalaren idazkia. Harekin batera, Udaltzaren Osoko Bilkuraren erabakia, Ameskoko Limitaciones Mendiko Batzarraren aldarrikapenei buruzkoa.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: lan-bilera egitea, emakumeari laguntzeko eskualde Zerbitzuko bitariko batzordearen ordezkariak haien jardueren helburu eta etorkizuneko proposamenei buruz azalpenak eman ditzaten.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: “Manufacturas de Navarra SAL”en ordainketa etenduraren espedienteko kontuhartzaileen irizpeneko II Tomoari buruzko informazioa.

### 5a:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko idazkia. Harekin batera, Zaireko errefuxiatuie buruzko ebazpen proposamena.

– Francisco José Fernández Segura jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia. Kontuen Ganbararen txostena eskatu du Iruñeko espetxearendako laguntzei buruz.

– Barañaingo Udalaren idazkia. Harekin batera, Udaltzaren Osoko Bilkuraren erabakia, Nafarroaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren aldekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Foru Lege proiektua, jarduera ekonomiko-erako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Noain-Elortzibarko Udalak Elorzko industrialdea dela eta izenpetu duten hitzarmenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak Tuterako DBHko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan euskarazko klaseak emateari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako saihebidetza egiteko N-232 errepidea destolesteari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Iparreko Autobian antzemandako arazoei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan dauden kontrolik gabeko zabortegi eta hondakindegiei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ikastetxe pribatu batek “dirulaguntzetarako laguntza” kontzeptupean kobratu dituen kopuruei buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, zorpetze eragiketegi buruzko informazioa.

### 6a:

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak HIESa Iruñeko Espetxean prebenitzeko programa

abian jartzeko hartu asmo dituen neurriei buruzkoa.

– Bidaurretako Udalaren idazkia. Harekin batera, aipatu Udalbatzaren Osoko Bilkuraren erabakia, Urbasa eta Andiako Parke Naturalaren deklarazioari buruzkoa.

– Ameskoako Limitaciones Mendiko Batzarren idazkia. Harekin batera, Urbasa eta Andiako Parke Naturalaren deklarazioaren aurkako sinadurak.

– M<sup>a</sup> Rosa Jiménez Marqués andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> Aránzazu Rincón Serrano andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Elisa Azcona García andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– José Ignacio Zabalza Valencia jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak tren batzuk Altsasun gelditzeko Renfera jotzeko asmorik ote duen itauntzen duena.

– M<sup>a</sup> Rosario Osés Orea andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Ignacio Imaz García jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Blanca Isabel Regulez Alvarez andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Ion Ander Mendinueta Ochotorena jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko

legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Inés Escriche Erviti andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia. Presoei buruzko proposamena aurkeztu du Giza Eskubideen Batzorde Berezian eztabaidatzeko.

#### **7a:**

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Cintruénigo eta Fiteroko udalei buruzko fiskalizazio txostenak.

– Aiegiko Udalaren idazkia. Harekin batera, aipatu Udalbatzaren Osoko Bilkuraren erabakia, Limitaciones Mendiko Batzarrak Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruz egin duen idazkiari buruzkoa.

– José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentariak egindako galdera, aldi baterako enpresak arautzen dituzten ekainaren 1eko 14/1994 Legeari eta urtarrilaren 3ko 4/1995 Errege Dekretuari buruzkoa.

– Pedro I. Uriz Zarza jaunaren idazkia, Euskal Herrian Euskarazen izenean. Hauxe adierazi du: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian euskarari ez zaiola baliorik ematen.

– Paloma González del Campo andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Félix Angel Cermeño Alonso jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> Inés Moneo Martínez andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> José Latasa Sánchez andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontrata-

tzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Marta Alicia Díaz García andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratazko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Myrian Marina Muruzabal Madoz andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pablo Lorente Zapatería Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak eta Francisco de Jaso ikastolak izenpeturiko eskola hitzarmenaren testuari buruz eskaturiko informazioa.

– Ana Berruete Urzaink andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratazko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Laura Alvarez de Eulate León andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Sara Lana Cambra andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Patricia Elena Durá Purroy andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen idazkia, Batzorde Iraunkorreko ordezkariak izendatzen dituena.

– María Repáraz Padrós andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, DBHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen partzuergoei buruzkoa.

– Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, Hezkuntza eta Kultura

Departamentuko organigrama eta postuei buruzkoa.

#### **8a:**

– Virginia Barrena Sotés andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Idoia Tajadura Tejada andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Ana Isabel Oiz Zarranz andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> Victoria Borja Etayo andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko Mozioa, Nafarroak NATOn sartzearen aurka adierazi zuen borondatea onartarazteari buruzkoa.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Nafarroako Gobernuaren dietak, joan-etorriak eta bidai gastuei buruzko fiskalizazio txostena.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia, NATOri buruzko ebazpen proposamena aurkezten duena.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Ezker Abertzalea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeen idazkia. Hauxe eskatu dute: Gizarte Gaietako Batzordearen lanbilera, espetxerako bisitaren ondorioak ateratzeko.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektoarearen idazkia. Hauxe eskatu du: Bateriaezintasunei buruzko Legeak aipatu Unibertsitateko gobernu-taldeko kideengan duen eraginaren berri.

– «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldearen idazkia, Saharako Parlamentuko Lehendakariari gonbita egitea eskatzen duena.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Kontuen Ganbarako Lehendakariaren agerraldia, 1994-1995 "enpleguaren sustapena" programari buruzko fiskalizazio txostena azal dezan.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia eskatu dute enpleguaren sustapenerako programaren berri emateko.

– Mónica Monreal Cía andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Bardeetako Erkidegoaren idazkia. Harekin batera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Gobernu Zentraleko Defentsa Ministerioaren eta Bardeetaako Erkidegoaren artean tiro barrutiaren erabilpenari buruz izenpeturiko Hitza-remenari buruzko argibideak.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Harekin batera, Giza Eskubideen Batzordeak espetxe politikari buruz hartzeko erabaki proposamenak.

– Carlos Securum Sanz jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia, Batzorde Iraunkorreko ordezkioak izendatzen dituenak.

#### 11:

– Ion Iturriaga Fernández de Jauregui jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Susana Zamarbide Bacaicoa andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Hauxe eskatu dute: Iruñeko Alkatea gonbidatzea Moneo arkitekto jaunarekin egingo den lan-bilerara.

– José Luis Burlada Echeveste jaunaren idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– Olga Urmeneta Marín andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Gelazain izateko hiru lanpostu lekualdatze-lehiaketaren

bitartez betetzeko deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> Pilar Ollo Luri andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

– M<sup>a</sup> Fe Ridaio Ayanz andrearen idazkia. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatze zerranda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdian onartua izatea eskatu du.

